

eliz-gizon zen aldetik bere egitekoa hain bikain bete zuenez, elizliburu, sermoilari eta aldizkarietako lanetan zuen nortasuna kontatuaz.

Ondorean, ehun eta hirurogeta lauri euskal irakasle titulu agiriak ematea. Laugarren emanaldi honi buruz euskaltzainburuak agertu ditu aurkezpenezko hitz batzuk, Euskaltzaindiak bere sorreratik, arautegian duen bete behar honi buruz.

Titulu agiriak banatu ondorean, J. Haritschelhar buruordezkoak agurrezko hitz batzuk esan ditu, Euskaltzaindiaren izenean batzarkide guzientzat.

Lemoako alkate jaunak ere agurrezko hitzak esan ditu eta batzarra amaitzeko Augusto Unzeta jaunak euskarari laguntza eskainizko hitzak esan ditu.

Batzarra bukatzean anaitasunezko bazkaria egin da.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1975-XII-21

BATZAR IREKIA DONIBANE-GARAZIN J. BARBIERREN OMENEZ

Batzar agiria

Donibane-Garazin (Baxe-Nabarre), 1975eko abenduaren 21ean, Hermezaren ondotik, eguerdiko hamabiak laurden gutiagotan, Herriko Etxean bildu dira: Garaziko hauzapeza, L. Villasante euskaltzainburua, J. Haritschelhar buruordezkoa, L. Dassance, J. L. Davant, X. Diharce, A. Irigoyen eta P. Lafitte jaun euskaltzainak; L. Akesolo, G. Alfaro (Lantziri), J. L. Alvarez Enparantza, J. Alliéres, P. Andiazabal, M. Atxaga, J. Berrojalbiz, J. Camino, P. Duny Petré, J. Etcheberry, J. Hiriart-Urruty, M. Itçaina, X. Kintana, M. Labeguerie, J. L. Lizundia, S. Onaindia, E. Salaberry eta J. J. Zearreta laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dela.

A. Arrue eta P. Larzabal jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Hasteko, Donibane-Garaziko kantari taldeak J. Barbier zenaren "Oilarra kukurruka" (*Amaxo*) kantatu du.

Euskaltzainburuaren hitzak, batzarkideak eta Garazi agurtuaz. Lurralde honen ohore bezala agertzen du lehen euskarazko liburua bertako D'Etxeparerena izan zalako eta hainbeste idazleen artean Jean Barbier zena eman zigulako.

J. B. Etxarren jauna mintzatu zaigu "Baxe-Nabarreko literaturaz", XVI. mendeko D'Etxepare, J. Etxegaray eta A. Logras-engandik hasi eta mendez-mende gure garaikoak arte bakoitzaren berri bereziak agerraraziz. Aipatu dituen izenik berezien arteko dira: D'Etxauz, López, S. Monho, Lapitze, Arbelbide, L. Etxeberry, Oxobi, Apestegy, J. Etxepare, Landerretxe, S. Arotçarena, Haristoy, eta abar.

Ondorean, Piarres Lafitte euskaltzain jauna mintzatu zaigu "J. Barbier idazle eta olerkariak". Donibane-Garazin sortu zen 1875eko uztailaren 9an, 1898rako apaiztu zen eta bi urte geroago Teologia doktoradutza egin zuen Tolosako Katoliko Mintegian eta handik bost urtera Baionako Katedralean Bikario jenerala; bere gogoz Senpereko apaiz 1913tik 1931an hil zen arte. Kantak, ipuiak, kondairak eta bi eleberri idatzi zituen. Olerkari gisa B. D'Ibarrart eta J. B. Elizanbururen mailakoa omen zen.

Bukatzeko, Donibane-Garaziko hauzapezak agurrezko hitzak esan ditu eta ondorean J. Haritschelhar, Euskaltzaindiko buruordeak, guztiei eskerrak eman dizkie.

Herriko Kontseiluak ohorezko edaria eskaintzen dio Euskaltzaindiari, eta gero Hotel Central-ean anaitasunezko bazkaria egin da.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN